

# Nortasuna, memoria eta botere-jokoak

Teresa del Valle

EHUko Gizarte-Antropologiako Katedraduna

Emakumeak memoriatik baztertzearen eta hauek gizarte nahiz kulturako botereguneetatik at ipintzearen artean datzan zerikusia ikertzen da. Honela, memoria sozialetik ezabatzerakoan erabili ohi diren bost mekanismoen azterketa egiten da. Emakumeontzat honek guztiak dituen ondorio diskriminatzaileak azpimarratzen dira oro har, eta era berean amatasun-esperientziaren jakintza eta jakintza zientifikoaren artean ematen den aurkakotasuna. Memoria berriak bere egiten du gorputzaren esperientzia, bai emakumeengandik bai eta gizonengandik datorren jakintza generikoa bereganatuz.

A relationship between marginalization of women's memory and their exclusion power mechanisms in society and culture is established. Five exclusion mechanisms from social memory are analyzed. The emphasis is placed upon the discrimination women experience from the opposition created between general knowledge obtained from the experience of maternity and scientific knowledge. The new memory should include body knowledge as gendered wisdom originated in the experience of both men and women.

Historia berriaren ekarpen garrantzitsu bat, alde batetik, emakumea ahanzturatik erreskatatzea da eta, bestetik, denboraren iraganera subjektu gisa inkorporatzea<sup>1</sup>. Ikusgaitasuna ematen dio eta anonimotasunetik desitsatsiz kategorizatzen du eta prozesu honetan, berezko eskubidez, gizartearen osagaitzat jotzen du, hala norbanako gisa, nola talde gisa. Antropologiak analisi-esparru batean kokatzen du emakumea, eta bertan, genero-sistemek adierazten dituzten erlazioak kultura desberdinen beraizkotetasunak era desberdinean komunikatzen dituzte. Prozesu historikoaren eta antropologikoaren globaltasunean, memoria, gako-elementu gisa gailentzen da eta bertan iragan-orainaldi-etorkizunaren jarioak genero-nortasunen sorketan eragin aktiboa du. Memoriak finkatu, grabatu, inkrustatzen<sup>2</sup> duenez gero, denboraren atzematea barnean hartzen du. Prozesu honek liluratu egin nau, alde batetik, antropologia feministak aztertzen dituen erlazioetan egituratzen diren sistemaren barruan emakumeek duten erlazioei dagokienez, eta, bestetik, boterea egikaritzearekin elkar-eragiten dutenei, hau da, berdintasun eta

diferentziako erlazioei dagokienez. Eta honek bi arrazoi ditu: emakumeek adierazten duten iharduera memoris-tikoa, eta hori egikaritzeko edo baztertzeko modu soziala. Denbora, espazioa eta boterea aztertuko ditut, azken hamarkadan ikertzaile gisa landu ditudan gaiak baitira.<sup>3</sup>

### **Memoria prozesu bezala, norbanakoarena eta taldearena hartzten duen denboran**

Memoria usainak, objektuak eta polena ekarri eta eramaten dituen haizea bezalakoa da. Gauzak lekuz aldatzen ditu eta,aldi berean, dauden lekutik erreskatatzen ditu. Adinaren poderioz denbora aldatu eta nahasten da eta orainalditik urrun dagoen iraganera hurbiltzen da, etorkizuna mozteak ematen duen beldurra gainditzen saiatuz.

Baina, pertsonak, lekuak, nola betetzen dira memoriak? Nola sortzen da oroimena ehuntzeko balioko duen bizitza-hondar hori? Hautsez estaltzen ari den apalari egunero begiratzea bezalakoa da, edo lan egiten dugun

---

1. Artikuluaren euskaratzailea: Eli Tolarretxi. Artikulu hau, hasiera batean, DEVA aldizkari kulturalean argitaratu zen gaztelaniaz, 1995eko martxoan: 14-21. Memoriaren eta genero-erlazioen gaia nik zuzentzen dudan ikerketa-proiektuan sartuta dago: "Proceso de cambio en la sociedad y cultura vasca. Ejes y articulaciones de los sistemas y relaciones de género" ("Aldaketa prozesuak gizartean eta euskal kulturaren. Genero-sistemen eta erlazioen ardatzak eta artikulazioak") UPV/EHUK finantzatua (UPV/EHU-HB 170/94).

2. Memoria sozial, indibidual edo pertsonal, eta tangenzialen artean bereizten dut. Azkenekoa talde alternatibo eta marginatuena izango litzateke. Emakumeen existentzia biltzen duen zati handiena bertan sartuko litzateke. Zabalena, memoria soziala izango litzateke, gizadiaren oroimenaren elaborazioa jasoko lukeena, eta kasu gehienetan botere-taldeekin erlazioatzen dena. Memoria tangenzialaren berbaldiak inkorporatzea izango litzateke helburu nagusia, giza esperientziak biltzen dituen aniztasun eta aberastasuna ordezkatzeko modukoa izan dadin. Herrialde baten zibilizazio-maila bere memoriaren arabera neurtu beharko litzateke. Herrialde batek, memoria tangenzialetik sortarazitako edo jakintza baztertu batek inkorporatutako zalantza baten ondorioz bere memoria birlantzen duen bakoitzean, aurrerapauso bat ematen du.

3. Zaila da pertsona batek jasotzen dituen eraginak identifikatzea. Hala eta guztiz ere, entseiu honetan Virginia Maquieira eta Mari Luz Estebanekin egindako hausnarketak adierazi ditut. Amelia Valcárcel 1994an Euskal Herriko Unibertsitateko "Estudios de la Mujer y sistemas de género" ("Emakumeari buruzko Azterlanak eta genero-sistemak") izeneko Masterraren barruan emandako mintegian izandako esperientziak elkartasunari buruzko hausnarketa egitera eraman ninduen.

mahaia, garai batean liburuak eta paperak egon ziren lekuak marrazten direnean. Plazer-sentsaziozko partikula ñimiñoak dira, zirrarezkoak, amodio eta desamodioek sortutako beroak eta hotzak dira. Nota burrunbariek, gortzeko moduko zaratetan bilduriko gertae-  
rek, une batez, bihotz-ikara sortzen dute, baina denboraren erretinak bakarrik azaleratzen ditu bertan gordetako bizipenak, horiek eraldatu eta argitara ekartzeko. Zenbat gauza erreskatatzen ditugu haurtzaroko bizipen horietatik guztietatik? Joko eta paseoetatik, adiskidetasunaren hasieratik, lehen amodioaren laztanetatik, zenbat dira azaleratzen direnak? Gauza bera esan genezake haizea eta eguzkiaren zein euriaren laztanak jaso ditugun bideetan, trenetan, hondartzetan edo mendietan utzitako arrastoez.

Gorputzek klimaren, adinaren eraginararen arrastoak jasotzen dituzte eta hauek hozka bezala agertzen dira. Ezpainen inguruan marraztutako irribarreak, zailtasun eta nekeak erakusten dituzten erriktusak eta aurpegian historia pertsonalean gertatutako hainbat eta hainbat gauza lantzen dituztenak. Gaur egun, azalari, aurpegiei, eskuei galdutako leuntasuna emateko nahi tematiarekin, ia sentitu gabe, gure barruan sartu den eta jende asko begibistan ikuste hutsak hainbeste gogaitzen duen iragan hori ezabatzen da.

Eta eskuak hainbeste mintza daitezke! Bada egiteak uzten duen memoria baloratzen denean bakarrik apreziatu daitekeen edertasuna. Eguzkeren tresna hartzeko, oterra jasotzeko ahaleginaren zimurdurak dira, gaur egun zirriborro besterik ez dena urteen poderioz marra sakona izango dela ia kalkulatu gabe aritu direnak. Sentimendu sakonak gordetzen dituen

memoriaren zati bat dira; batzuk barrualderantz, besteak, konpartituak.

Hor daude arian-arian jaso ditugun soinu eta kadentziak; lehen hizkuntzarenak, maitasun-adierazpenenak, haserre-garrasienak, emozioenak, etengabe darien errekenak, kanpaienak, erlojuenak, auzokoen irratienak, sirena deiadartsuenak, tabernetako telebistenak, parkeetako haurren oihuenak, edozein ebokaziotan azaleratzeraino gordeta dauden soinuez hondorik gabeko ontziak betetzeraino.

Emakumeen memorian, orokorrean, etxearen eta familiaren unibertsoarekin loturiko jakintzen transmisioa biltzen duen eremua dago. Analisi feministak hori hiru puntu desberdinetatik aztertzea bultzatu du: lehenik, diferentziatik: bertan, jakintza hauek, gizonen aldean, emakumeen entitatea eta estatua azpimarratzeko baliabide gisa erabiltzen dira; berez, emakumeei dagozkie eta hauei bakarrik dagokie horiek transmititzea. Bigarren angelua berdintasunarena izango litzateke eta honako hau aztertuko luke: jakintza desberdindu hauek zein neurritaraino datozen opresioko egoera batetik eta akotatzen jarraitzeak bere balioa galtzean laguntzen ote duen. WAVY Hirugarrenaren erreferentzia nagusia jakintzak esperientzia unibertsalaren maila zabalagoan kokatzen dituen elkartasuna izango litzateke. Testuinguru global honen barruan kokatuz, emakumeen jakintzak kulturartean aztertuko dira, jakintza orokorraren guztizko zenbaketan duten ekarpenaren entitatea neurtzeko.

Entseiu honetan aipatutako bigarren angelutik egingo dut analisia eta hirugarrenean barneratuko naiz. Balorazio eta memoria-eremu desberdinak dituen etxeko eremuarekin loturiko

jakintzak badirela baieztatuko dut. Hala eta guztiz ere, ez dira merezi duten entitate osoarekin memoria sozialean inkorporatu; gainera, kasu askotan, bertatik kanpo geratu dira. Baina memoria berriaren estrategiek lortuko dute horiek inkorporatzea.

### **Ausentziaren presentzia**

Kultura mediterraneoetan, emakumeak, sarritan, etxeko taldeari loturiko gertaeren memoriaren jasotzaile gisa agertzen dira. Emakumeei dagokie santuak gogoraraztea, eta zailtasunen, etxe-aldaketen eta ospakizunen zama beraiengan erortzen da. Hildakoak eta erbesteratuak edo lan zein ikasketa-arrazoia direla-eta, joan zirenak gogoratu behar dituzte. Erbesteratze eta gerra-garaien nahigabeen artxiboa dira. Hau da, ausentzia bertaratzea da beren zeregina.

Euskal kultura tradizionalan, emakumeek hildakoen oroimena aktibatzen zuten. Oroimen honen irudikapen sinbolikoa elizan leku bat okupatzean zegoen, *sepultura*-n, alegia, eta emakumeek *argizaiola*-ren<sup>4</sup> bitartez iraganaren eta orainaldiaren arteko lotura irudikatzen zuten. Emakumearen protagonismo ebokatzaile hau gaur egungo hileta politiko batzuen erritualekin loturik ere agertzen da. Bertan, jarraitasuna naturatik hartutako sinboloen eta amaren funtzioaren erreferentziaren bitartez adierazten da.

Iragana oraindira ekartzeko prozesu hauetan guztietan, beste pertsonen oroimena aktibatzean, zereginei buruzko jakintzak, ezagupenak, eta gorputzaren bizipenak transmititzean,

emakumeak memoriara jotzen du, bere memoriara alegia, iragana orainaldian sartzeko. Bizi-memoria da, zenbait kasutan emozio desberdinetan eta xehetasun sotilekin adierazten dena. Memoria hau, maiz, aberastasun narratibo izugarriarekin eta xehetasun ugariarekin azaleratzen da, eta kasu gehienetan, jakintza onartuaren barruan sartu ez den jakintza osatzen du, norbaitek erreskatatu eta prestigioa emateko zain.

Oro har, emakumeei ausentziak presentzia bihurtzeko ahalmena ematen zaiela esan daiteke, maite izandakoen eta ingurune familiarrarekin loturiko gertaeren oroimena lantzen dutelako. Hau berez, paradoxa hutsa da, kontuan hartzen badugu historia unibertsalak emakumearen betiko presentziaren aurrean ezikusiarrena eginez, emakumeen ausentzia betikotu duela.

### **Memoria soziala baztertzeko mekanismoak**

Gizarte orok, denboran zehar, hurrengo belaunaldiei transmititzeko garrantzitsutzat hartzen duen jakintza-corpus bat du; honi, lehen esan bezala, memoria soziala deritzogu entseiu honetan. Jakintza horiek forma anitzetan komunikatzen dira. Horrela, batzuk idatzita geratuko dira; besteak, komunikabideen bitartez emango dira jakitera. Beste batzuk, espazioan inkorporatuko dira monumentu edo kale-izen gisa. Iragarki xehea, saria ematea edo omenaldia, esanguratsu delako, azpimarratu nahi den gertaeraren adierazle publikoak dira. Etengabeko lantze eta birlantze-prozesuaren memoria soziala da.

---

4. Emakumeek *sepultura*-ren gainean kokatzen zuten oholaren inguruan bildutako argizaria. Hildakoen oroimenezko meza edo ospakizunetan piztuta egoten zen.

Prozesu orokor honen barruan, emakumeengan eragin zuzena duen memoria sozialaren hondo kolektiboaz ohartu naiz. Zenbait mekanismoren bidez azaleratzen da —horietako bost identifikatu ditut— eta horiek memoria sozial barneratzailearen aurka egiten dute, hau da, memoria tangenzialen narratiba barneratzen duen memoria-aren aurka. Bazterketa-mekanismo hauek honela identifikatu ditut: usurpazioa, debaluazioa, isilarazpena, eraldaketa interesatua eta lapsus genealogikoa.

**Usurpazioa.** Erreskatatzen den jakintza bere entitate osoarekin transmititzen da, baina jaso dutenak sortzaileak izango balira bezala finkatzen da. Adibidez, gizonak, euskal kulturean, sukaldaritza-tradizioa eskuratu dute. Amen eta amonen sukaldaritza izatetik, gizonak, “euskal sukaldaritza berria”-ren epigrafepean, ospea eta onura ekonomikoen eragile bilakatu da.

**Debaluazioa.** Erreskatatzen den jakintzaren balioa jaitsi egiten da dagokion lerruna ematen ez zaiolako; aitzitik, dagokion kategoria globalaren arabera baloratzen da; kasu honetan, emakumearena edo emakumeena. Iharduera, afizio eta zaletasun asko “emakumeen gauzak” deiturapean sailkatzen dira eta etxeko inguruarekin zerikusirik ez duten jokoarekin aplikatzen zaie.

**Isilarazpena.** Jakintza horien berri bada, baina ez zaie jakintza orokorrean sar daitezen behar bezalako entitatea ematen. Esate baterako: etxeko antolamenduarekin loturiko ihardueretako asko; sozializazioari berez dagozkion jakintzak, gorputza zaintzearekin zerikusia dutenak bereziki, edo osasuna zaintzearekin

loturiko ezagupenak; adibidez, etxeko praktiketatik medikuntza naturalera, bai eta emakumeek orain arte egin dituzten ekarpenak ere.

**Eraldaketa interesatua.** Emakumeek zientzi esparru desberdinetan egindako ekarpenei buruzko jakintza. Normalean, dagokien esparrua lantzeko abiapuntutzat hartzen da baina ez da inoiz beren jatorria aintzat hartzen. Une honetan badira emakumeek buruzko ikerketa-arloetan sartu diren gizonak, eta honen arrazoiak, besteak beste, honako hauek izan daitezke: lantzen dituzten ikuspuntu berritzaileak ia gizonak ez egotea desberdintasunaren balorazio positiboa ekar lezake beraientzat, edo sustapen-aukerak emakumeen erakundeek finantzatutako proiektuen bitartez; gainera zenbait ingurutan zeregin progresistatzat hartzen da.

**Lapsus genealogikoa.** Gauza bera esan daiteke, ordurarte egindako guztia alde batera utziz, emakumeek edo generoak hitz egiten hasten diren pertsonak buruz; ez dute generoa sartzen den tradizioan kritikoki kokatzen, ez baitute kontuan hartzen hori emakumeen lorpena izan dela. Inor ez litzateke marxismoak hitz egitera ausartuko bere jatorriak, ekarpenak eta eztabaida esanguratsuenak kontuan hartu gabe. Norbaitek hala egingo balu, gaian adituak diren pertsonen kritikak aski izango liriateke haren lana baliogabetzeko.

Halako kritiketan, isiltasunak, bidegabeko tratamenduak edo isiltasun zientifikoak suposatzen duena, emakumeek buruz emakumeak bakarrik aritu daitezkeela dioten erreklamo eskusibistatik bereizi behar dugu. Henrietta Moore-k adierazi duen bezala, behar bezalako distantziarekin,

beste gizona/beste emakumea aztertzeari uko egitea ekarriko luke, eta hau funtsezkoa da antropologian. Antropologiaren hastapenei berez dagokien babespen-fasea, teorian gutxienez, erabat gainditu da.

### **Amatasuna memoria marginal/ /tangenzial gisa zientziaren aldean**

Emakume askok gorputzaren gako-jakintzetako bat den amatasunaren bitartez beren nortasuna landu eta bere memoria pertsonala egikaritzen du. Esperientziaren pertsonalizazio honek lotura bikoitza izan dezake: amari protagonismoa eta prestigioa ematen dio familiaren zirkuluan, amatasunarekin erlazionaturiko guztia partikular eta zehatz bezala kontzeptuatzun delako; eta bestetik, testuinguru zabalagoan, unibertsal eta zientifikoaren aurkako gisa agertzen da. Lotsagarria da historian zehar eta leku ezezagunenetan izan diren erditze-kopuruak amaitezinak izanik, amatasuna, historian edo zeregin zientifikoan ez agertzea. Gerrak, hondamendiak, itun politikoak, erlijioen aurrerakada bezalako gaiak garai-aldaketaren mugari gisa jasotzen dira edo beren esangura neurtzeko sakonki aztertzen. Giza-biziraupenerako gakoa bada ere, amatasuna ez da ekarpen zientifiko garrantzitsuen ardatz izan. Latzenak iruditzen zaizkidan gerren ingurukoak bezalako errelatoetan, bonbaketak, alde desberdinen biktimak, konkista belikoak aipatzen dira, baina arraroa da gerra-garaiko erditzeak aipatzea.

Ama-senak, emakumeak, sufrimendua amatasun biologikoarekin lotzera eramaten dituela pentsatzean oinarritutako sinesmena oso errotuta dago. Izugarritzko barne- eta kanpo-indarra

agertu nahian, emakumeak, hain gertu ukitzen dionari aurre egin behar dio, bere itxaropenak eta desioak isilarazten dituen bitartean. Oroimenetik erreskatatu ditut emakume gazteek xehetasun osoz egindako komentarioak; ez dago inolako zalantzarik: beste emakumeek esandakoa oso txikia zen erditzearen esperientziaren aldean. Gainera, oinazearen oroimenak handik denbora askora bizirik zirauen.

Erditzea oso mingarria bada ere, jaioberria ikusteak aurreko orduetan jasando guztia konpentsatzen eta ezabatzen duela entzun ohi dugu. Indiferentziazioarekin emakume-kategoriari nahasketarako predisposizioa ematen zaio, eta horrenbestez, emakumeak plazerraren eta oinazearen artean, zenbaterainoko oinazea jasan dezaketen ez ezagutzeak ematen dien angustia eta hura gainditu izanaren lasaitasunaren artean bereizteko gai izango ez balira bezala ematen du. Baina oso gauza desberdina da emakume bati bizi izan duen une bakoitza nola adierazten duen entzutea; orduan, sufrimenduaren mugak banandu eta plazererako apostua egiten duela nabari da argi eta garbi. Hala eta guztiz ere, pertzepzio, gogoeta eta esperientzien aberastasun hori guztia hor badago ere, amatasunetik erortzen den memoria, oroimen sozialaren prozesuetan, eta are gutxiago historian, ezohiko zirkunstantzian besterik ez da sartzen: emakume ospetsuen kasua edo ospea izan duten seme-alabak izan dituztenen kasua izango litzateke.

Gorputzaren jakinduriaren garrantzia nabarmentzen duen proposamenak emakumeen seme-alaben bidezko betiraupenaz (memoria denboran zehar) ohartzera narama. Kasu askotan beren denbora-transzendentzia

amatasunarekin lotuko dutenez gero, esan daiteke, hasiera batean, horrek beren jokaerak eta balioak biologiaren interpretazio aldagaitzean oinarrituak balira bezala interpretatuko dituen gizarte-eremuan kokatuko dituela. Amatasunarekin bideratutako gauza orok bere balioa mantenduko du bere parametro tradizionalei eusten dien heinean: erditzean indartsu izatea oinazea sentitzen bada ere; amaren maitasunaren ezinbestekotasuna; ama-nortasunaren lehentasuna, edo, besteak beste. Jakintza horretan, esperientzia fisiko eta emozionalaren balioa, antzeko giza esperientzien mailan transferitu beharrean, biziki partikularizatzen da eta ez zaio unibertsalizazioari biderik ematen. Eta gauza bera gertatuko da amatasun-memoriaren prozesuarekin nahiz gizarte-memorian sartzeko aukerarekin. Gutxitan aurkitzen dira amatasunaren eta beste ohiko gertaeren artean globalizazioa ezartzeko saiioak, ez eta seme-alabekiko erlazioen konplexutasunaren eta autonomia eta boterearen arteko ehuneriaren artean ere. Kasu gehienetan, amatasunaren esperientzia, gatazka sor dezakeen bide desberdin eta kanporatzailetzat aurkezten zaigu, bereziki, prozesu sortzailearekin, profesionalizazioarekin, edo etxetik kanpoko gauzetarako pasioarekin konbinatzen bada. Aitzitik, jakintza objektibagarrien edukinak, sormenarekin eta zientziarekin identifikatzen direnak, jakintza orokorraren barruan agertzen dira, disziplina, berbaldi eta metodologietan luzatzeko eta erakusteko ahalmenarekin. Bere izaera aldakorrean birbaloratzen den jakintza da, aurrerakuntzaren definizioa eragiten duena. Amatasunaren jakintzak askoz ere eraginkorragoak dira eta, kasu gehienetan, tradizioarekin lotuta daude.

Honela, ugalketaren inguruan, inkorporatu ez diren jakintza garrantzitsuak aglutinatu dira. Horiek egikaritzean, emakumeak, prestigio transzendentea ematen duen jakintza lantzen den gizarte-bizitzako ardatzetatik banantzen dira.

Ahantzzezina da balio unibertsaltzat hartutako eta gizonen ekarpenarekin loturiko jakintza asko biziraupenarekin eta oinarritzko produkzioarekin erlazionaturiko eguneroko ihardueretatik datozela: ehiza, arrantza, nekazaritza. Baina aipatutako jakintzak, ordea, gizarte-antolamenduarekin edo gizarteak denboran zehar izandako garapenarekin eta aurrerakuntzaren ideiarekin lotuta agertzen dira. Horrenbestez, emakumearentzat, amatasun bereziaren bizipenak orainaldiaren oroimena iraunarazteko aukera nagusi bezala, bere historia pertsonaltzat hartzen duen horretan, eta gertaera pertsonal hau historia zabalago batean sartzeak oztopoak ezarriko dizkiote. Emakumeak bere memoria oinordezkotzan (semeak/alabak) iraunarazteari eman zaion garrantzi aldebatekoak, belau-naldietan zehar linealki adierazten den asmo sendo eta zehatza izanik, prestigioa ematen duen jakintzaren eraikuntzaren aldean kontraste izugarria sortzen du, jakintza hau zuzenean eragin daitekeen eta ondorio ugaltzailea duen kanpoko gauza aldakorra bezala agertzen delako; biologikotik banantzen den jakintza hau aldakorra eta maneigarria da; amatasunarenak, aldiz, finkatzeko joera du. Jakintza zientifikoaren kontrolaren bitartez, genealogiak, ekarpen unibertsalak eta memoria anitzak jasotzen dituen prozesu metatzailean sartzen gara.

Amatasunarekin lotutako jakintzaren balioaren eta jakintza zientifikoaren

balioaren arteko esperientzia kontra-jarri honetan, barruan/kanpoan, ger-tu/urruti, biologikoaren jarraitasuna/ /sormenaren etena motako aurkaketez baliatzen den zenbait premisa dago; eta azken hau distantzia eta dife-rentzia gisa interpretatzen da. Zienti-fikoa dena aurkezten den distantziari berehala aurka jarriko zaion esperien-tzia da. Beraz, emakumearentzat, askotan, aurkako orientabideak eta bakoitzak lerrun zein prestigiozko esleipen desberdinak dituzten eremu-etan mugitzea dakar; esate baterako, esperientzia subjektiboa eta belaunaldi-arteko komunikazioa. Jakintza zientifikoan, amatasunaren barnean diren ezaugarriak devaluatuta daude. Eta gainera, norbanakoaren memorian metatutako jakintzak, ama izateko aukera hartzen duen emakume bakoitza sartzen den amatasun anitzen memoria kolektiboan metatutako jakintza ere badenez, ez du ez lekurik ezta adierazpenik ere baliozko eza-guera unibertsalizatzaile gisa. Ez dira memoria sozialean sar daitezkeen ekarpenzat hartzen.

Jakintza-mota berehalakoena, nabarmenena, sexuen diferentzia biologikoa, alegia (Handman 1992), jende guztiek maila berean irekita duten jakintza da. Marie-Elisabeth Handmanek Françoise Héritier-Augé-ren iritzia jaso du: giza gorputzaren diferentzia fisikoa behatetik sortzen dira berbaldiaren kategoria kontzeptualak eragingo dituzten berbaldi ororen funtsezko eta oinarrizko kate-goriak, irudimenezkoaren eta sinboli-koaren munduan, lanaren zatiketa sexualean, eta, ondorioz, emakumeen eta gizonen jakintzetan. Halaber, hasiera batean, berdintasuneko auke-rak mantentzeko ahalmen gehien dituen jakintza da, gizaki guztien esperientzia pertsonalean metatutako

jakintza delako. Era desberdinean transmititzen da eta sexualitatea eta ugalketa adierazteko forma sozial eta kulturalen bitartez lantzen da. Per-tsona orok egin dezake gorputzaren jakintzari buruzko gogoeta bere historia pertsonaletik abiatuz. Baina gauzarik harrigarriena, Handmanek esaten duen bezala, jakintza hauek, mendez mende, lerro desberdinetan zehar transmititzea da: oso gutxitan elkartu edo nahasten diren emaku-meak/gizonak lerroak. Gizarte indus-trialen egoerek aldaketak adierazten dituzte; bertan, lerro horiek bat etor-tzeko joera dute eta horiek antzeman beharko ditugu. Handman eta Heritier-Augé ekonomia, politika, menpeko-tasuneko eremuak hartzen dituzten jakintzen banaketa sexuala gorputzen irudikapenetan kokatzen dute. Beste autore batzuek ere aipatu duten gorpu-tzaren funtsezko garrantziak, genero-erlazioak berdintasunean kontzeptuali-zatu ahal izateko, amatasunetik haran-tzago joateko beharra planteatzera eramaten gaitu.

Nola atera daiteke amatasuna bere esparru pribatutik? Nola emango zaio entitatea gizarte-ondasuntzat hartua izan dadin? Gauza ez da amatasuna eta lana bateragarri izan daitezzen konponbideak besterik ez aurkitzea; hori denboraren poderioz lor daiteke. Balorazioa, prestigio-kontua da. Ama-tasuna bere hobi ilunetik atera dadin, amatasuna emakumeen aukera des-berdintzailea dela dioen ideia baztertu behar da. Emakumea gizonen seme-alabengandik zein beren ihardueretatik zenbat eta gehiago banandu, are eta handiagoa izango da ihardueren, naturaren eta kulturaren arteko bere-zitasunaren naturalizazioa, halako dikotomia den gizarteetan bederen. Hau ez da unibertsal bat; aitzitik, kontzeptu eta esperientzia nagusia da.



Amatasunaren funtzio biologiko eta sozialen arteko banaketa zabalagoak, amatasunari berez dagozkion zereginak positiboki aniztuko ditu eta emakumeei tradizioz esleitu zaizkion funtzioetatik harantzago joatea ahalbidetuko du.

### **Memoria berria: Gorputzaren esperientzia jakintza konpartitu gisa**

Proposatu ohi denez, amatasunaren ginetik gorputzaren esperientzia eta erreferentziazko memoria daude, bai emakumeentzat, bai gizonentzat ere, ez lerro bateraezinetan, gizakien gorputz-esperientziaren aldakortasun gisa baizik.

Gorputza, orokorrean, abiapuntutzat hartzeko asmorik gabe, baina ikuspegi baliotsu bezala, zenbait jakintzaren aberastasuna aztertzeko gertuen dagoen esperientzia horrek duen garrantzia jasotzen dut. Abaniko handi batean, oinazea, joko erotikoak, maitasun-adierazpenak, denboraren marrak sartuko lirатеke. Era berean, ikuspuntu hori baloratzen dut, bizi izandako gorputzaren ezjakintasunak osasunaren eta sexualitatearen esperientzian izan ditzakeen ondorioak nabarmentzen dituelako. Eta gainera, garrantzitsua iruditzen zait amatasunaren bitarteko gorputzaren esperientzia memoriarekin eta boterearekin bideratzen duen horretan gelditzea, kulturalaren eta biologikoaren arteko identifikazioa zein puntutaraino mantentzen den eta horrek emakumeen nortasun baztertzaileren betiraupean nola funtzionatzen duen ikusteko.

Sentitutako esperientzia jakintza bezala inkorporatzen duen gorputzean oinarritutako enfasi honek eskema binario biologistak apurtzen ditu: ema-

kumea/gizona. Ikuspegi horretatik, generoa espektro bat bezala ikus daiteke: alde batetik, kategoria desberdinduenak egongo lirатеke, eta arkua-ren modukoa trazatuz, desberdintasunik gabeko puntu batera iritsiko ginатеke; bertan gizon edo emakume izatea ez litzateke gauzarik esanguratsuena izango, sentitutako nortasunen eta sozialki esleitutako nortasunen arteko konkordantzia-maila baizik. Era berean, gorputzaren bizipenezko irakurketaren enfasiak berbaldi-aldaketak, berbaldi alternatiboak kokatzea ahalbidetzen du, desberdintasun fisiologikoak, emaitza desberdinekin, berrinterpretatu eta trukutzen diren moduaren arabera: batzuetan, desberdintasunaren premiari, mantentmentuari eta transmisioari eusteko; besteetan, fisiologikoaren eta genero-erlazioen adierazpen sozial eta kulturalen ahalmenak ontzat hartzean. Berbaldi-aldaketak eta biologikoa-ren ezarpenak kritikoki detektatzeko larrialdi honek desberdintasun fisiologikoetan oinarritutako zurruntasuna baina esleipen indibidual eta sozialeko kategoria sexualen jarioa defendatzen duen jarrera mental eta emozionala dakar.

Hala emakumearen gorputza, nola gizonarena, abiapuntutzat har daitezke, emakumearen amatasunean bakarrik pentsatu beharrean. Gorputzak ere norbanakoaren memoria jasotzen du eta memoria sozialaren subjektu izan daiteke, giza esperientziaren areak metatzen dituelako.

Ikuspegi globalizatzaile honetan, amatasunaren alderdi biologikoa identifikatzen duen jakintza sartuko litzateke, eta, ondorioz, alde batetik, emakumeak bere gorputzaren memoria izateko duen eskubidea, eta, bestetik, amatasunak duen dimentsio soziala.

Memoria soziala aberatsagoa izango litzateke milaka milioi erditzeen esperientzian metatutako jakintza gizadiarentzako disziplina anitzeko ekarpena izan daitekeela aintzat hartuko balu, honako hauei buruzko jakintzak hartzen dituelako: emozioak, osasuna, nortasuna, amodio eta menpetasuneko erlazioak, eta gorputzarenak, oro har. Baina, zer ekarriko luke ia kontuan hartzen ez den jakintzaren balioa aintzat hartzeak?

Ugalketaren eta jakintzaren arteko banaketa aurkezten den moduak, emakumea, isolaturik, ugalketa/sormena zereginen inplikatzeko den neurrian, kanpokoa periferikoki bizi du. Honekin ez dut esan nahi lehenak isolamendua ekartzen duenik; izan ere, sozializazio-lanak emakumeak beste pertsona batzuekin harremanetan jartzen ditu: irakasleak, lagunak, osasunaren munduko profesionalak. Hurbiltasuna eraikitzen da, esklusioa, definitzaile gisa. Isolamendua seme-alaben proiektua gizonarekin eta beste pertsonekin konpartitzea baino gehiago da. Seme-alaben bitartez denboran iraungo duen bizipena, sozialki, gauza banandu eta balorazio gutxiagoko bezala kategorizatzen da. Kasu honetan, memoria, esperientzia fisiologikoa denboran zeharreko ezarpen gisa hartzen da; biologikotik harantzago joanez eta amatasunari buruzko generalizazioak eginez eta amatasuna plano sozialean jarriz bakarrik neutralizatuko ahal izango da. Emakumearen betirako iraupena, memoriaren biologizazio gisa interpretatzen denaren bitartez, identifikazio pertsonal bezala erabil daitekeen prozesu bezala planteatzen da; aitzitik, ez da oso erraz inkorporatuko, eraikuntza kultural gisa, memoria elaboratzeko.

Banaketaren, eta ondorioz, batera ezintasunaren ikuspegi hau da ugalketaren eta zeregin zientifikoaren artean izan den banaketa eragin duena. Eta honek eragin negatiboagoak ditu emakumeengan gizonengan baino. Gizarte batean, banaketa ezarri beharrean, espazio, denbora, zeregin, prestigioaren esleipen eta ugalketa-produkzioarekin (kasu honetan jakintzaren produkzioarekin) lotzen duen erlazioen artean continuuma ezartzeko ahaleginek ezagueren kalitatea eta kantitatea gehituko dute. Une honetakoa bezalako krisi ekonomiko garaian espazio hauen berregituraketa mentalari eta praktikoari ekiteko erabakia hartuko balitz, eragin positiboak izango lituzke maila askotan: baliabideen kudeaketan, eta dentsitate demografikoko, mugikortasuneko, sexu-biolentziako edo amatasuna/aitatasuna egikaritzeko moduak ezartzeko arazoak ebazteko alternatibak aurkezterakoan.

Memoria-forma berriak sortzean eta garatzean eta gorputzaren eta plazerren kontzeptualizazio zabalean, biologian oinarritutako esleipen finketatik at, intsertatu ahal izango da amatasuna. Biologiaren eta amatasunaren dimentsio sozialaren arteko banaketa kontzeptualak eta ugalketaren eta sexualitatearen arteko bereizketak norbanakoaren memorian garrantzitsuak diren adierazpenak memoria sozialean sartu ahal izateko esparrua sortuko dute. Baina, nire ustez, amatasuna emakumeen osagarri desberdintzaile gisa hartzeak inoren eremuan kokatzen gaituen leku berera eramango gaitu.

## Bibliografía

- Aretxaga, B., (1988): *Los funerales en el nacionalismo radical vasco*, La Primitiva Casa Baroja, Donostia.
- del Valle, T., (1991): "Género y sexualidad aproximación antropológica", In T. del Valle eta C. Sanz Rueda *Género y sexualidad*, Fundación Universidad Empresa, Madril.
- del Valle, T., Sanz Rueda, C., (1991): *Género y sexualidad*, Fundación Universidad Empresa, Madril.
- Connerton, P., (1989): *How Societies Remember*, Cambridge University Press, Cambridge.
- Douglass, W. A., (1973): *Muerte en Murelaga. El contexto de la muerte en el País Vasco*, Barral, Bartzelona.
- Esteban Galarza, M.L., (1993): *Actitudes y percepciones de las mujeres respecto a su salud reproductiva y sexual. Necesidades de salud percibidas por las mujeres y respuestas del sistema sanitario*, Bartzelonako Unibertsitatean aurkeztutako doktoretza-tesia.
- Héritier, F. (1994): *Les deux soeurs et leur mère*, Éditions Odile Jacob, Paris.
- Handman, M.E. (1993): "La division sexuelle des savoirs", *Estructuras sociais e desenvolvimento. Actas do II Congresso de Sociologia*, II Bol., Associação Portuguesa de Sociologia, Lisboa.
- Moore, H. L., (1991): *Antropología y feminismo*, Cátedra (Colección Feminismos), Madril.
- Shils, E. (1981): *Tradition*, Faber and Faber, Londres.